


Jasangarri- tasuneranzko bidea

Garapen jasangarriaren euskal
ingurumen-estrategia
2002-2020



ingurumena
Zure esku dago



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Jasangarri- tasuneranzko bidea

Garapen jasangarriaren euskal
ingurumen-estrategia
2002-2020

helmugak

aire, ur eta lurzoru
garbiak eta
osasungarriak
bermatzea



natur baliabideen
eta hondakinen
kudeaketa
arduratsua



natura eta
biodibertsitatea
babestea





lurraldeko oreka eta
mugikortasuna:
ikuspegi komuna



klima-aldaketaren
eragina
mugatztea



helmugak



Zer da garapen jasangarria?


Garapen jasangarriaren helburua da planetako biztanle guztiek bizi-kalitate hobea izatea, orain eta etorkizunean, Honek berarekin dakar:

- Denok gure beharrak asebetetzeko behar ditugun baliabide ekonomikoak izatea.
- Denok eskubide eta aukera berberak izatea.
- Denok ingurumen garbiago eta osasungarriago batez gozatzea.

Jasangarritasuna solidaritatearen aldeko mezua da, bai beste herriei bai etorkizuneko belaunaldiei begira.

Badugu aurreratzeko jarraitzeko estrategia bat.

Jasangarritasunerantz joateko jakin beharra daukagu noraino heldu nahi dugun eta ingurumenaren aldetik zein egoeratik abiatzen garen. 2002ko ekainaren 4an onartu zen Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen-Estrategiak (2002-2020) epe luzerako 5 helmuga ezartzen ditu gure lurralderako nahi dugun ingurumen-kalitatea lortzeko. Xede bakoitzean helburuak eta konpromisoak ezarri dira eta horietan betetzeko epeak. Guztira, 223 konpromiso finkatu dira.



Ingurumena: guztion ondasuna

*Denok dugu ingurumen osasuntsua erabiltzeko eta hartaz gozatzeko eskubidea, bai hura zaintzeko betebeharra ere.
(Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra).*

Ingurumenetik datozkigu arnasten dugun airea, ura, elikagaiak, botikak, aisialdirako guneak, ... Hura babestean dago gure biziraupena.

Jasangarritasuneranzko bidea ez da amaitzen Estrategia onestearekin; Estrategia bera da abiapuntua ingurumenaren gainean eragingo duten jarduerak publiko eta pribatu guztien jarraibideak finkatzeko.

Denok hobetu behar dugu eta hobetu ahal dugu ingurumenaren kalitatea.

**Kontsultatu Estrategia osorik
www.ingurumena.net web orrian!**

Ingurumenean garatzen da bizia. Ingurumena hondatuta edo kutsatuta baldin badago, gure osasuna eta beste bizidunena ere horrelaxe egongo da. Airea, ura eta lurzorua dira gure ingurunea osatzen duten funtsezko osagarriak. Denon ardura da egoera egokienean mantentzea eta ardura hori hartu behar dugu, orain eta etorkizunean inguru osasungarri batean bizi nahi badugu.

Helburuak:

- *Substantzia arriskutsu eta kutsatzaileen emisioak eta isurketak murriztea.*
- *Ura garbitzea edo araztea, lurzoru poluituak berreskuratzea eta elikagaien segurtasuna bermatzea.*

Bide onetik al goaz?

- **Gure ibaien eta itsasoen kalitatea hobetzen ari al gara?**



EAEko uren %15 bakarrik garbitzeke dago.

- **Arnasten dugun airearen kalitatea hobetzen ari al da?**



2000. urtean zehar ez zen egun bakar batean ere aire-kalitate txarrik antzeman. Hala ere, azken urteotan garraiobideek sortzen dituzten kutsatzaileen emisioak areagotzen ari dira.

- **Nola egin aurrera lurzoru poluituak berreskuratzeke ahaleginetan?**



1990-2001 epean 192 hektarea berreskuratuta dira.


aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea

Zein da euskal administrazioak hartu duen konpromisoa?


- 2006. urterako ibilgu publikoetara, edo itsaso eta lehorren arteko gunera guztira isuritako poluitzaile-kargak %50 murriztea.
- Inguruneke airearen kalitateari dagokionez, Europako Batasunaren helburuak betetzea.
- 2006. urterako lurzoru poluitu publikoen %20 berreskuratzea.
- 2006. urterako gizakiarentzako elikagaiei etiketak jartzea, nola ekoiztu diren adieraziz.

Martxan dauden ekintzak

- Urak, aire eta lurzorua zaintzeko sareak hobetu eta zabaltzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko barruko arrozen Plangintza Hidrologikoa egitea.
- Urak garbitzeko eta arazteko azpiegiturak sustatzea eta finantzatzea.
- Industrian zarata-maila kontrolatzeko gida lantzea.
- Lehenetasuna duten substantzia poluitzaileak erabili, ekoiztu eta ezabatzen dituzten industria-sektoreekin hitzarmenak sinatzea.
- Ingurumenaren arloko arau-haustekak prebenitu eta jarraitzeko 2003-2007 zaintza eta kontrolerako plana egitea.
- Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko Legeak arautzen duen ingurumeneke baimen integratua kudeatzea eta Igorpen eta Iturri Kutsagarrien Euskal Erregistroa martxan jartzea (EPER-Euskadi) •



helmugak



2 natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua

Natura oso emankorra da baliabide naturaletan. Naturatik datozkigu ura, energia, elikagaiak eta gure ongizatea eragiten duten kontsumo--produktuak ekoizteko lehengaiak. Baina ura kontsumitzean, energia sortzean eta lehengaiak transformatzean hondakinak sortzen ditugu. Hondakin horiek orain eta etorkizunean berriro naturara isurtzen dira eta zeharo poluitzaleak izan daitezke.

Bide onetik al goaz?

• Baliabideen kontsumoa gutxitzen ari al gara?

- 🔴 1996 eta 1999 bitartean uraren kontsumoa %18 areagotu zen.
- 🟡 1990 eta 2000 bitartean energiaren kontsumoa guztira %23 areagotu da. Hala ere, 1990 eta 2000 bitartean energia erabiltzeko eraginkortasuna %10 hobetu da.
- 🔴 Lurzoruaren kontsumoari dagokionez, 1996 eta 1999 bitartean bizitegitarako lurzoria %20 handitu da eta jarduera ekonomikoek hartzen duten lurzoria %25.

- 🔴 **Hondakin gutxiago sortzen al dugu?**
1990-2001 denboraldian hiri-hondakinak %66 areagotu dira. 1994-2000 denboraldian industria-hondakin arriskutsuak %12 areagotu dira.
- 🟢 **Hondakinak hobeto kudeatzen al ditugu?**
Hiri-hondakinen gaikako bilketa 16 bider handiago da 1990-2001 epean. 1998. urtetik aurrera industria-hondakin arriskutsuen %100 kudeatzen da.

Zein da euskal administrazioak hartu duen konpromisoa?

- Biztanle bakoitzeko ur-kontsumoaren gorako joera aldatzea eta 2010. urterako ur-horniduran izaten diren galerak %20 murriztea.
- 2010. urterako energia berriztagarrien erabilera areagotzea Europako Batasunaren helburuen arabera.
- 2006. urterako hondakindegietara eraman beharreko hiri-hondakinak guztira sortutako kantitatearen %75 izatera arte murriztea.
- 2006. hondakin arriskutsuak sortzea egonkortzea 2000. urtea erreferentziatzat hartuta.

Martxan dauden ekintzak

- Baliabideen kontsumoa gutxitzeko eta hondakinak ahalik eta ondoen kudeatzeko sentsibilizazio-kanpainak.
- Euskal Energia-Estrategia egitea.
- Hondakin arriskutsuak, hondakin ez arriskutsuak, hiri-hondakinak, nekazaritzako eta abelzaintzako hondakinak eta hondakin sanitarioak kudeatzeko planak.
- Hainbat hondakin arriskutsu hobeto kudeatzeko esperientzia-pilotoak sustatzea (etxetresna elektrikoak, ekipamendu elektriko eta elektronikoak, erabiltzen ez diren ibilgailuak, eta abar) •




helmugak





Bizia gure planetaren altxor handia da. Biziak hartzen dituen era anitzek–biodibertsitateak–ezerk baino hobeto adierazten dute bere aberastasuna. Biodibertsitatea babestea ezinbestekoa da ekosistemen oreka zaintzeko. Ekosistema horietan bizidun ugari elkarrekin bizi dira, horien artean gizakia, eta bizirik irauteko elkarren beharra dute.

Helmuga honen helburuak honetan dautza, beraz: ekosistemak, animalia- eta landare-espezieak eta paisaia babestean, zaintzean eta, beharrezkoa denean, berreskuratzean.

Bide onetik al goaz?

 Gaur egun, EAEko lurzorua %15 babestuta dago (Urdaibai, Txingudi, 7 parke natural, 5 babestutako biotopo) eta %25-30 babestu nahi da, korridore ekologikoak sortuz.

 Arriskuan dauden espezieen Euskadiko Katalogoan babestu ahal izateko neurri bereziak behar dituzten espezieak (faunako 146 taxon eta florako 136) biltzen dira. Arriskuan dauden 4 ornodun-espezie babesteko kudeaketa planak onartu dira.

 EAEko 6 hezegune Nazioarteko Garrantziko Hezegunen Ramsar Zerrendan sartuta daude.

natura eta biodibertsitatea babestea


3

Zein da euskal administrazioak hartu duen konpromisoa?


- 2006. urterako EAEko Natura 2000 Sarean sartuta dagoen azalera EAEko azalera osoaren %20raino zabaltzea eta bakoitza babesteko, erabiltzeko eta berritzeko planak egitea.
- 2006. urterako EAEko korridore ekologikoak egitea.
- 2006. urterako desagertzeko arriskuan dauden espezie katalogatu guztientzako kudeaketa plana ezartzea.
- 2012. urterako, gutxienez, 15 km ibaiertz berreskuratzea.

Martxan dauden ekintzak

- Urdaibain Interpretazio, Ikerketa eta Ingurumen Hezkuntzarako Erabilera Plana.
- Urdaibaiko Interpretazio Zentroa eraikitzea, Madariaga Dorrean (Busturia).
- Beste Parke Natural batzuk (Aizkorri-Aratz, Armañon, Entzia) deklaratzeko prozesua.
- Hezeguneak eta Itsasertza Babesteko eta Antolatze Lurraldearen Arloko Planak.
- Arriskuan dauden flora eta fauna kudeatzeko planak.
- Jaizubiako (Hondarribia) ibarreko padurak, Debako ibarra, Urdaibaiko Axpeko aintzira eta ibaien ubideak ingurumenaren aldetik leheneratzea.
- Biodibertsitatearen eta paisaiaren adierazleak egitea.
- Ingurumenaren ikuspegitik sentikorrek diren guneen katalogoa eta arriskuan dauden espezieen katalogoa.
- Biodibertsitatea eta honen baliabideak ikertzeko proiektuak.●



helmugak





4 lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi komuna



helmugak



Bizi-kalitate ona eta lotura sozial eta ekonomiko hobea lortzeko hainbat zerbitzu eskaintzen dira; zerbitzu horiek pertsona guztien eskura egoteak gizartearen garapena dakar. Zerbitzuen antolamendua giltzarria da garraio eskaera gehitu ala gutxitzeko. Zerbitzuetara ailegatzeak behar baino mugikortasun handiagoa eragiten badu, auto-pilaketak eta istripuak ugaritzen dira, baita ingurumen eta gizakion osasuna kaltetu ere. Helburua da mugikortasun beharrak gutxitzea; horretarako, autoaren erabilpena areagotzen duten jarduera eta erabilera urbanistikoak ez bultzatzen ahalegindu beharko litzateke.

Hiriak bizitzeko lurralde erakargarri, eroso eta osasungarriak izan behar dira. Ondarearen kontserbazioa sustatu behar da, hots, landa-inguruaren eta kostaldearen aniztasuna, aberastasuna, erakargarritasun naturala eta kulturala.

Bide onetik al goaz?

• Lurraldea modu egoki batean antolatzen al da?

- Hainbat lurralde-antolabide onartuta daude:
 - Lurraldearen antolamendurako artezpideak.
 - Lurraldearen Arloko 6 Plan.

• Nola bultzatzen dute udalek tokiko jasangarritasuna?

😊 56 udalerrri sartuta daude Tokiko Agenda 21 izeneko prozesuetan.

• Mugikortasun-eskaerak modu jasangarrian asetzen dira ingurumenari dagokionez?

☹️ 1990 eta 2000 bitartean auto-kopurua eta autobia zein autobide sarearen kilometro-kopurua %30etik gora hazi da. Bestalde, lantokira edo lantokitik autoz egiten diren joan-etorriak 1989ko %38tik 1999ko %47ra iritsi dira.

Zein da euskal administrazioak hartu duen konpromisoa?

- 2006. urterako, 5.000 biztanle baino gehiago dituzten EAEko udalerrri guztiek Tokiko Agenda 21eko beren programa diseinatuta izatea, banaka edo eskualdeka.
- 2006. urterako garraio kolektiboa %10 gehiago erabiltzea, EAEko hiriguneetako bidaiarien garraio guztiarekin alderatuta.
- Errepideko garraioa gutxiago erabil dadin lortzea, trenbide, ubide nabigagarri eta garraio publikoa sustatuz.

Martxan dauden ekintzak

- Lurraldearen Arloko 8 Plan eta Lurraldearen Zatik 15 Plan egitea.
- Industria-aurriak eraisteko diru-laguntzen programa.
- Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak eta konpromisoak ezartzeko diru-laguntzen programa.
- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea 21, sortzea.
- Garraio eta ingurumenaren adierazleak.
- Garraio Jasangarriko Plana.
- Bizikletaren erabilpena sustatzeko planak
- Urdaibain garraio publikoa sustatzeko kanpaina •

Lurraren atmosferaren berotegi-efektua fenomeno naturala da; honako honetan datza: atmosferako ur-lurrun eta karbono dioxidoa (CO2) kontzentrazioek eutsi egiten diote erradiazio infragorriari.

Efektu hori ez balego, askoz ere hotzagoa izango litzateke lurreko temperatura eta bizia (gaur egun dagonena, behintzat) desagertu egingo litzateke. Alabaina, industrializazioa hasi zenetik giza jarduera dela eta, asko handitu da berotegi-efektua eragiten duten gas askoren kontzentrazioa.

Klimaren aldaketa, hortaz, mehatxua da ingunumenarentzat mundu osoan. Ibilgailuek, zentral elektrikoek, etxebizitzetako berokuntza-sistemek eta abarrek erregai fosilak erretzea da berotegi-efektua eragiten duten gas-isuriak ugaritu izanaren arrazoaia.

Bide onetik al goaz?

• Zenbaterainoko eragina dugu klimaren aldaketan?

☹️ %25 gehitu dira 1990-2000 denboraldian, berotegi-efektua eragiten duten gasen zuzeneko isurketak.


• Zeintzuk dira klimaren aldaketan gehien eragiten duten sektoreak?

- ☹️ · Energia-sektorea: isuri guztien %30. 1999 eta 2000 bitartean %77 gehiago.
- 😊 · Industria-sektorea: isuri guztien %24. 1999 eta 2000 bitartean %25 gutxiago.
- ☹️ · Garraio-sektorea: isuri guztien %25. 1999 eta 2000 bitartean %70 gehiago.



klima-aldaketaren eragina mugatzea


5



Zein da euskal administrazioak hartu duen konpromisoa?

- 2012. urterako, Kioton berotegi-efektua sortzen duten gasen emisioaren inguruan finkatutako helburuak bete daitezen laguntzea.
- 2010. urterako, energia berriztagarrien erabilera areagotzea, Europako Batasunaren helburuen arabera.
- 2012. urterako, sustapen publikoko eraikuntza/etxebizitza berri guztiek eragingarritasun energetikoaren ziurtagiria izatea.

helmugak



Martxan dauden ekintzak

- Berotegi-efektua eragiten duten gasen isurpenen inbentarioa (1990-2000).
- Klima-aldaketari buruzko dibulgazio-argitalpena.
- Energia eta ingurumenaren adierazleak egitea.
- Eguzki-energia aprobetxatzeko ekipamendua duten etxebizitza sozialak sustatzea.
- Euskal ikastetxeetan eguzki-energia fotovoltaikoa aprobetxatzeko panelak jartzea •